



**ORDENANTZA 14. ZK**

**AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA**

**TXAKURRAK EDUKITZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**1. ARTIKULUA.- ANIMALIAREN DOKUMENTAZIOA**

1.- Udalerrian bizi diren txakurren jabe edo edukitzaileak txakurraren osasun-kartilla eskuratu beharko dute, eta hori biziartekoa izan behar da.

2.- Txakurra hiltzen denean, debekatuta dago animalia gorpua kalean edo hiribilduko orubeetan abandonatzea eta udal zerbitzuari jakinaraziko zaio, honek gorpuz arduratzeko.

**2.ARTIKULUA. TXERTAKETA**

1.- Txakur orori jarrito zaio amorraren kontrako txertoa urtean behin, animalia osasun-kartillan jasota utziz.

**3.ARTIKULUA. KALEKO TXAKURRAK**

1.- Kaleko txakurtzat hartuko da jabe ezaguna edo helbidea ez duena edo herrian edo herriz kanpoko bideetan pertsona batek lagunduta ez doana (lotu gabe joan daiteke, jabea hurbil baldin badago).

Animalia horiek udal zerbitzuak jasoko dituzte eta animalien babeserako zentzora eramango dituzte, zentzuko arauen menpe geratuz.

2.- Animaliarekin jarraitu nahi ez duten jabeek, ez dute inolaz ere abandonatuko, udaleko arduradunaren eskuetan utzi beharko dute. Hori horrela ez bada horrek dakarren zehapena jasango dute.



#### **4. ARTIKULUA. TXAKURREN EGONALDIA LEKU PUBLIKOETAN**

1.- Debekatuta dago animaliak sartzea edo edukitzea elikagaiak fabrikatzen, saltzen, biltzen, garraiatzen edo manipulatzeko dituzten lokaletan.

2.- Jendearentzat zabalik dauden gainerako establezimenduetako (hotel, jatetxe, taberna, kafetegi...) titularrek debekatu egin dezakete euren lokaletan animaliak sartzea edo egotea.

3.- Debekatuta dago animaliak sartzea edo edukitzea edozein ikuskizun publiko, kirol edo ikuskizun kulturaletan. Era berean, ezingo da animaliarik sartu herriko igerilekuetan.

4.- Animaliak leku komunitario pribatuetan sartzen badira, hala nola, kultur elkarte, txoko eta auzoko erkidegoen esparruetan, erakunde horien arauak ezarritakoa bete beharko da.

5.- Artikulu honetan ezarritako debekuetatik salbuetsirik daude ikusmen urriko pertsonak laguntzeko gidatxakurrak, artikulu honetako bigarren puntuaren ezarritakoak salbuetsita.

#### **5. ARTIKULUA**

1.- Etxebizitzetan txakurrak edukitzeak honako betebeharrak dakartza: higiegi neurri egokiak bermatzea, animalia osasun arriskurik sortu gabe edukitzea eta betiere jendeari traba ez egitea.

2.- Debekatuta dago hutsik dauden etxebizitzetan txakurrak edukitzea. Era berean, auzokoei arazoak sortuz gero, debekatuta dago ere, animalia horiek etxebizitzetan azpiko lonja edo hurbileko lokaletan edukitzea.

3.- Debekatuta dago etxebizitzetan salmentarako txakurren hazkuntza. Edozein etxebizitzetan lokaletan horrelako ekintzarik ezarri nahi bada, udaleko lizentzia lortu behar da 1961ko azaroaren 30eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko araudiari jarraituz.

Animalia horiek ezingo dira kalean saldu.



## 6.ARTIKULUA

### **TXAKURREN JABEEN BETEBEHARRAK BIDE PUBLIKOETAN PASEATZEN DIRENEAN**

#### **Bide publikoan animaliak ibiltzeak garbiketan duen eraginari buruzkoa**

- 1.- Txakurrak bide publikoetan edo jendea dabilen tokietan uhalez eta lepokoaz eraman beharko dira. Euren izaera eta ezaugarrien arabera arriskugarriak izan daitezken txakur guztiak mozala eraman beharko dute. Horretarako arrazoirik badago, alkateak mozala jartzea agindu dezake.
- 2.- Animaliek pertsona edo gauzei kalteak eta gaixotasunak eragin edo bide publikoa zikintzen badute, horren guztiaren erantzule animalien jabeak izango dira.
- 3.- Txakurraren jabea bertan ez bada, gertaera izan zenean animalia zeraman pertsona izango da erantzule subsidiarioa.
- 4.- Animalia batek bide publikoa zikinduko balu, udaltzainek zera egin ahal izango dute:
  - a) Animaliak eragindako kaltea berehala konpontzeko exijitu jabeari edo une horretan animalia duen pertsonari.
  - b) Animalia aldi baterako gorde, dagozkion udal-instituzioetan entregatzeko.
- 5.- Ezinbesteko neurri higieniko gisa, bide publikotik txakurrekin edo bestelako animaliekin doazenek ezingo diote animaliarik gorozkirik edo pixarik egiten utzi, oinezkoen zuzendutako bide publikoko edozein lekutan.
- 6.- Osasun publikoko arrazoiak direla-eta, animaliek ezin izango dute, inolaz ere, gorozkirik egin espaloi, parterre, plaza, berdegune, lur-gune eta herritarrak ibili eta egoten diren edo jolasteko dauden bide publikoko gainerako tokietan.
- 7.- Bide publikoan daudenean, animaliek Udalak baimendutako tokietan egin beharko dituzte gorozkiak.
- 8.- Horrelako instalaziorik egon ezean, edo daudenak oso urrun badaude, animaliek gorozkiak estolda-sarearen isurbideetan, galtzadan zintarri ondoan edo burdinesirik gabeko zuhaitz-txorkoetan egin ahal izango dituzte.



- 9.- Nolanahi ere, bide publikoan gorozkirik geratu bada, animaliarekin doanak horiek bertatik jaso eta kendu beharko ditu; horrezaz gain, kaltetua izan den bide publikoaren zatia garbitu beharko du.
- 10.- Animalia daramanak edo jabeak, aurreko atalean xedatutakoari jarraiki, honako bideetako bat aukeratu ahal izango du:
- a) Gorozkiak higiene aldetik onargarriak diren modu batean hustu, zabor—bilketarako erabiltzen den etxeko poltsaren bitartez.
  - b) Ondo itxitako poltsa iragazkaitzetan jasotako gorozkiak paperontzi edo udal-zerbitzuek zehaztutako bestelako ontzietan utzi.
  - c) Gorozkiak bildukirik gabe estolda-sarera bota, isurbideen bidez botatzea.

Aurreko atalean aipatutako arauak hausten diren guztietan, Udalak arduradunak zigortu ahal ditu, eta, behin eta berriz arau-hauste horretan erortzen badira, animaliak atzeman eta dagozkien udal-instituzioen eskutan utzi ahal izango dira.

- 11.- Animaliek parte hartzen duten herriko jaietan edo bestelako ekintza publikoetan, edo, bide publikoan animaliekin egiten diren lehiaketa eta erakusketetan, besteak beste, udal-baimena beharrezkoa izango da eta, beraz, dagokion tasa edo fidantza ordaindu beharko da, sor daitezkeen kalte eta zikinkeriarri erantzun ahal izateko.
- 12.- Zerbitzuko langileek animaliek sortutako gorozkiak garbituko dituzte, eta, era berean, kaltetutako gunea garbi utzi beharko dute. Udalak ordaindutako fidantzatik kenduko du, edo, bestela, lan horiek eragindako gastuak ordainaraziko ditu.

## 7. ARTIKULUA

### **HAGINKADA BATEN AURREAN EGIN BEHARREKOARI BURUZ**

1.- Txakur batek kozka eginez gero, agintari sanitarioei jakinaraziko zaio lehenbailehen. Jabeek animalia erasotzailearen datuak eman behar dizkiote erasotutako pertsonari, bere legeordezkariei eta agintari eskudunei, eskatuz gero.

2.- Pertsona edo beste animali bati kozka egiten dion txakurra, horretarako izendatzen den lekura eraman beharko da, behatuta izateko. Era berean, animalia jabeak zehapena jasoko du.



3.- Jabeak hala eskatuz gero, aurreko atalean aipatutako aldeko txostena kontuan hartuz eta betiere animaliak dokumentazio eta txerto guztiak baldin baditu, aipatutako behaketa, horretarako izendatzen den lekura eraman gabe egingo da.

4.- Jabeak edo edukitzaileak uste badu animaliak errabia izan dezakeela, osasun zerbitzuei jakinarazi beharko die eta horiek esandakoa bete beharko dute.

5.- Txakurra arriskugarria denean, osasun zerbitzuek jasoko dute.

6.- Jabeak ordainduko ditu animalia bildu eta kontrolatzeak udalerrinari sorrarazten dion gastuak.

## 8.ARTIKULUA

Animaliak ihaultzea debekatuta dago..

## 9. ARTIKULUA ERANTZUNKIZUNA

Txakurraren jabearen erantzunkizuna izango da animaliaaren portaera eta arau aplikagarri honen arabera sortzen dituen kalteak.

## 10. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK

Ordenantza honetan ezarritako bete beharrak ez jarraitzea arau haustea da.

Pertsona natural edo juridiko orok Aguraingo Udalean salatu dezake ordenantza honetako edozein arau haustea.

## 11. ARTIKULUA

- Zehapenak ezartzerakoan kontuan hartuko dira gertaeraren inguruabarrak, erruduntasun mailaa, egindako hutsegitearen garrantzia, behin baino gehiagotan egin izana, edo lehenengoz egin izana, eta inguruabar aringarri edo astungarriak.

**ERANSKINA:**



**ARAU HAUSTE ETA ZEHAPENEN TAULA**

<b>Bete gabeko artikulua</b>	<b>1go zehapena. Zehapena eta isuna:</b>	<b>1go errepikapena. Zehapena eta isuna:</b>	<b>2. errepikapena: Zehapena eta isuna:</b>
Art. 6.5 zk	Ohartarazpena	30,05 €	90,15 €(*)
Art. 6.11 zk	30,05 €	60,10 €	90,15 €

- Arau-haustearen 2. errepikapena gertatzea

(\*) Udalak animaliarri atxikitzeko ahalmena izango du.

Txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantza 1998ko uztailaren 16an onartu zen behin betiko eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da da indarrean eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ALKATEA,

IDAZKARIA,